JANTOKIAREN ANTOLAMENDUA

1. MENUAK

1. Oinarrizkoa
2. Txerrikirik ez
3. Obolaktobegetarianoa
4. Obolaktobegetarianoa arrainarekin
5. Nutrizio-premia berezietarako dietak: Intolerantziak, alergiak, eta dieta bidezko tratamendu espezifikoa daukaten patologietarako dietak.

2. 3. 4. edo 5. menuak nahi izanez gero, eskaera orria bete behar da Jantoki arduradunaren bulegoan.

Menuak eskolako web gunean ikus daitezke.

2. JANKIDEAK

-**Ohiko** jankideak: Jantoki zerbitzua ikasturte osorako eskatu dutenak eta, gutxienez, astean hiru egunetan joaten direnak.

-**Tartekako ohiko** jankideak: Banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik, agian, ikasturte osoan, astez aste edo hilabetez hilabete txandaka ibili daitezkeen ikasleak.

-**Ez ohiko** jankideak: Aurreko sailkapenetik kanpo geratzen diren jankideak dira.

3. FINANTZIAZIOA

1. Kuotak

JANKIDEA	GARRAIOKOA	EZ GARRAIOKOA
OHIKOA	3,30€	4,60€
TARTEKAKO OHIKO JANKIDEA	3,30€	4,60€
EZ OHIKOA	5,20€	5,20€

-Ikasleen bekak ebatzita egon arte, eta, aurreko ikasturtean bekadun izan ziren ikasleen kasuan, jantokiko kuotak ez kobratzeko aukera izango dute.

-Bi ordainagiri ez ordaintzea, jantokiko plaza galtzeko arrazoia izango da. OOGk hartutako erabakia.

2. Kuota ordainketa
Urteko egunak guztira x 4,6€ : 10 kuota = hilero familiak ordainduko duen kuota.
Kuotak hilabetearen 3. astean pasatuko dira. Lehenengoa irailean izango da.

3. Kuotak itzultzea
Jantokiko kuotaren zati bat itzuliko zaie erabiltzaileei, honako kasu hauetan:

a) Ez bada jantokira joango, aurrez onartutako eta programatutako jarduera osagarriren bat egin behar dutelako eta picnik zerbitzurik ez bada behar.

b) Jankidea ez bada jantokira joaten astebete edo gehiago segidan, beti ere, **gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazten bada.**

Bi kasu horietan kasu bakoitzean ikasleak ordaindu beharreko kuotaren % 50 itzuliko zaio, jantokian huts egin duen aurreneko egunetik. Deskontua ekainean egingo da.

Itzulketak ekaineko kuotan egingo dira.

4. Bankuaren komisioak
Banku erakundeak komisiorik ordainaraziko badu, ordainagiriak itzuli direlako, dagokien jankideek ordainduko dituzte.

5. Bankuaren datuen aldaketa
Familiaren batek bankuko datuak aldatzen baditu “Hirugarren Alta” deitutako dokumentua, berriro bete beharko du. Dokumentua Jantokiko Arduradunari eskatu.

4. IRTEERAK JANTOKI SASOIAN
-Jankidea heldu batekin irteten bada, telefonoz, emailez, whatsapp-ez edo idatzi batez jakinaraziko dio jantokiko arduradunari (komenigarria da nor datorren bila esatea).

-Jankidea bakarrik irteten bada, derrigorrez, eskolak emandako baimen eredua ekarri beharko du sinatuta eta jantokiko arduradunari emango dio. Eredu hau irailean banatuko da.

5. JANTOKIKO ARDURADUNA
-Arreta ordutegia: 9:00etatik 11:00etara
-Telefonoa: 615 751 842 - 94 428 01 74
-Email-a: jantokia@landakoeskola.org